

DIRU SARRERAK

WasteHero proiektuaren diru-sarreraren eredua bezeroek eskaintzen den produktu eta zerbitzuaren truke zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden kontuan hartuta definitu da. Gure bezero nagusiak, udalak, ikastetxeak, enpresak eta komunitate antolatuak dira, hondakinen kudeaketa eraginkorra, jasangarritasuna eta berrikuntza teknologikoa baloratzen dituztenak.

Proiektu honek bi diru-sarrera mota nagusi bereizten ditu: ordainketa bakarreko diru-sarrerak eta ordainketa errepikariko diru-sarrerak. Biak beharrezkoak dira proiektuaren bideragarritasuna eta epe luzeko jasangarritasuna bermatzeko.

Alde batetik, ordainketa bakarreko diru-sarrerak honako hauetatik datoz: edukiontzi adimendunen salmenta. Edukiontzi hauek WasteHero sistemaren aktibo nagusia dira, eta barnean sentsoreak, ikusmen artifiziala eta pantaila digitala dituzte. Diru-sarrera hauek bereziki garrantzitsuak dira hasierako inbertsioa estaltzeko, proiektuak behar duen hardware eta instalazio kostua kontuan hartuta.

Bestetik, ordainketa errepikariko diru-sarrerak proiektuaren oinarri ekonomiko sendoa dira. Horien artean daude harpidetzagatik sariak, erabiltzaileek edo erakundeek sistema erabiltzeagatik hileko edo urteko kuota bat ordaintzen dutenean. Harpidetzak aplikazioaren erabilera, datuen analisia, IoT konexioa eta gamifikazio-sistema barne hartzen ditu. Gainera, erabileragatik sariak ezarri daitezke, edukiontzi kopuruaren edo erabilera mailaren arabera.

Halaber, alokairu edo renting-eredua eskaintzen da, hasieran inbertsio handia egin nahi ez duten bezeroentzat. Bigarren mailako diru-sarrerak ere aurreikusten dira, hala nola tokiko enprekin egindako komisioak edo publizitate mugatua.

Azkenik, WasteHero proiektua administrazio publikoari, bereziki udal eta gobernu erakundeei, zuzendutako proposamen estrategikoa da. Gure helburua ez da soilik produktu teknologiko bat saltzea, baizik eta hondakinen kudeaketa adimenduna, eraginkorra eta jasangarria eskaintzea, politika publikoekin lerrokatuta. Gobernuarentzat, WasteHero tresna erabilgarria da ingurumen-helburuak betetzeko, hiri adimendunak garatzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko. Horregatik, gure asmoa da ideia eta soluzioa erakunde publikoekin lankidetzan garatzea eta ezartzea, gizarte osoarentzat onurak sortuz.